

# Ospitalean, baina onik da 80 orduz leize batean egon den espeleologoa

Anette Van Houtte belgikarra atzo 05:38an ateratu zuten Ixabako San Martin Harriko zuloatik

## ERREDAKZIOA

Kanpoan da. Igandean hasi zen erreskatea atzo goizaldean amaitu zen, 05:38an: Anette Van Houtte espeleologo belgikarra ordu horretan ateratu zuten onik Ixabako San Martin Harri inguruko leize zuloatik, ohatila batean, 80 orduz zuloan harrapatuta eta zaurituta egon ondoren.

Leize zuloatik ateratu eta berehala, Pauko ospitalera (Frantzia) eramane zuten espeleologoa, helikopteroz. Larunbatean sartu zen leize zuloan beste lau kideekin batera. Avalon taldeko kideak dira, eta hainbat urte egin dituzte jada San Martin Harri inguruko sistema aztertzen.

Espeleologoa 700 metroko sakoneran zegoenean eta irteeratik 4,5 kilometro ingurura, hormatik askatu zen eta harri puska batek jo zuen oinean: hiru behatz hautsi zizkion, eta zauri irekia eragin zion. Ezin aurrera egin gelditu zen.

**ERRESKATE ZAILA.** Igande arratsaldetan jaso zuten larrialdietarako zer-



Anette Van Houtte espeleologoa leize zuloatik ateratu zuten unean. EFE

bitzuek ezbeharraren berri eman zuten deia. Espeleologoen taldeko bi kide zuloatik ateratu ziren laguntza bila, eta beste bi Van Houtterekin gelditu ziren, barruan. Leize zuloatik kanpo, salbamendu lanak martxan jarri zituzten Nafarroako Larraldi Agentziako kideek, Guardia Zibileko mendi taldeetakoek eta Baionako suprefeturako espeleologia erreskaterako kideek, denak elkarlanean.

Leizearen ezaugarriek eta eguraldiak asko zaildu dute erreskatea. Azken egunotan eguraldiak txarrera egin du Ixaba inguruan: tenperaturak behera egin du, eta euria egin du. Leize barruan, berriaz, hotza eta hezetasuna.

80 lagun aritu dira denera lanera igandean geroztik. Haietako bat izan da Fernando Alejo, Guardia Zibileko mendi taldeko kidea. «Oso zailtzat» jo du erreskatea.

Inoizko zailenetako bat izan da, berretzat. «Gogorra izan da, bai fisikoki, eta bai psikologikoki».

Zailtasun horien lekuko, erreskatearen azken txanpan lehergaiak erabili behar izan zituzten, ohatilari bidea egin ahal izateko. Salbamendu taldeko kideek, halaber, 400 metroko horma bertikal batean gora eraman behar izan zuten espeleologoa, leize zuloatik ateratu ahal izateko. Alejo emakumearen jarrera azpimarratu du: «Emakume gogorra da psikologikoki, eta nahiko ongi zegoen ateratu geroz». 80 ordu eman ditu espeleologoa leize barruan.

Espainiako Gobernuko Nafarroako ordezkari Vicente Ripak azpimarratu du salbatzeko lanetan aditurik onenek parte hartu dutela. Bere ustez, haien lanaren arrakastak hiru gako nagusi izan ditu: «Lehenik, espeleologoa bakarrik gelditu ez izana, beste bi kide ondoan baitzuten; bigarrenik, harekin egon diren medikuek egindako lana, leizean bertan artatu baitzuten emakumea lehen unean; eta, hirugarrenik, telefonoz komunikatzeko aukera eduki izana».

**JABIER LES** Espeleologoa

## «Harritu nau guardia zibilengana jo izanak, eta ez espeleologoengana»

**E. ELIZONDO**  
Iruñea

Espeleologia ez dela jarduera arriskutsua nabarmendu du Jabier Les espeleologoa. Van Houtteren erreskatean jende gutxi aritu dela uste du.

**Ezagutzen duzu Ixabako leize hori?** Hori, zehazki, ez. Pirinioetako hainbat leizeetan ibili naiz, baina, oro har, ez da hori nire lan eremua. **600-700 metroko sakoneran gelditu zen harrapatuta Anette Van Houtte, ezin aurrera egin zaurien ondorioz. Aipatu izan da San Martin Harri inguruko leize horiek direla sakonetakoak.**

Ez da hala. Munduko leizerik sakonena 2.080 metro sakon da. Alde handia dago horren eta Ixabakoan artean. Pirinioetan, dena den, Larrako karstean, leize handiak badira, eta horiek 50eko hamarkadan munduko zulo handi bilakatu ziren. Belgikako taldea eta Euskal Herriko beste hainbat ari dira orain San Martin Harriko sistema aztertzen. 70eko hamarkadan hasi ziren lan horretan, eta lan horien emaitza orain ari gara jasotzen. Belgikarrek azken hamar urteak eman dituzte lanean. Anette Van Houtteren taldea 700 metro sakon sartu da sistema horretan, eta 20 kilometro luzeran.

Espeleologia jarduera arriskutsua dela erran daiteke?

Ez, alderantziz. Espeleologia ez da kirol jarduera bat. Hori argi utzi behar da. Ikerketarako lan zientifiko bat da. Abiapuntu hori hartuta, espeleologian aritzen garenok argi dugu gure segurtasuna dela lehen-tasuna, beste edozer gauzaren gainetik. Istripu gutxi izaten dira. Anette Van Houtte izan duen istripua ere ez da larria izan. Kontua da bere kabuz ateratzeko gai ez dela izan. Leizeetan egiten diren erreskateak zailak dira inguru horrek dituen baldintzek ere asko zailtzen dutelako lan hori. Dena dago kontra: ura, hezetasuna... belgikarrek gurutzatzen ari ziren errekek bi graduko temperatura du, leizeak, berriz, 5-6 gradukoak, eta horrek zaildu egiten du erreskatea.

**Asko kostatzen da erreskate taldeei espeleologoa ateratzea. Normalizat jotzen duzu baliatu duten denbora?**

Kasu honetan erreskatean jende gutxi aritu dela uste dut nik. Hala, koetan 150 lagun ere aritzea ohikoa da. Eta benetan harritu nau hemengo erreskaterako espeleologo taldeei deitu ez izanak, guardia zibilengana jo izanak, eta ez espeleologoengana. Guardia zibilak ez dira halako erreskateetan adituak. Lan gogorra egin dute, baina ez dut uste halako kasuetan erabili beharreko politika hori denik.



## berriaren 2008ko egutegirako LEHIAKETA

**GAIA: berriak 5 urte**

**SARIA: 1.000 euro**

**LANAK JASOTZEKO AZKEN EGUNA:** irailaren 3a  
Sariduna zein den urrian jakinaraziko dugu, **berria**n bertan.

**MARRAZKIAREN TAMAINA:**

28,5 cm (zabalera) x 20 cm (garaiera)  
Taina horretan, marrazkia irregularra izan daiteke, baina neurri horietatik ateratu gabe.



OINARRIAK:

[www.berria.info](http://www.berria.info)

Aukera ezazu,  
BIZI euskaraz  
**berria**

